

BIKO TEKA:

2019



1. (iz.) *Ilustratzaile* bat eta *idazle* bat [elkarrekin] liburu bat egiten jartzen diren lekua.
2. (adb.) Binaka pentsatzearen artea.
3. (iz.) *Hitzaren* eta *ilustrazioaren* arteko sinbiosi sekuentziala suposatzen duen ariketa.
4. (hed.) Indar metaketa.

BIKOTU:



2019ko urtarrilaren 28tik otsailaren 1era, Iruñean
Galtzagorri Elkarte
galtzagorri@galtzagorri.eus
943 471 487

BIKO TEKA 2019

Liburu grafikoetarako ilustrazio eta narraziogintza tailerra

Harkaitz Cano eta Aitziber Alonso

ZER:

Liburu ilustratu bat nola pentsatu, idatzi, sekuentziatu, marraztu eta argitaratu daitekeen landuko da lau egun eta erdiko ikastaro trinko honetan.

Zein da liburu ilustratu baten abiapuntua?

Nola eraikitzen da pertsonaia bat irudiz eta nola hitzez?

Zeintzu dira arketipoak eta nola funtzionatzen dute?

Nola sekuentziatzen da istorio bat?

Nola atera dakiok ahalik eta etekinik gehien irudizko lengoaiari, hitzek diotena literalki ilustratu beharrean istorioari dimentsio berri bat emateko?

Nola argitaratu liburu ilustratu bat?

Nola funtzionatzen du album ilustratuen edizioaren munduak gurean?

Idazle-ilustratzaileak bikoteka jarri eta modu praktikoan nork bere lanera bideratutako erabakiak hartzen laguntzea da Aitziber Alonso ilustratzaileak eta Harkaitz Cano idazleak koordinatuko duten tailer honen helburua. Hirugarren tailer honetara liburu grafikoak argitaratzen dituzten Txalaparta argitaletxeko editore ohi Mikel Soto eta ZTK argitaletxeko Paxkal Indo editorea ere gonbidatu ditugu, euskal album ilustratuen edizioa bertatik bertara ezagutzeko.

IRAKASLEAK:

Aitziber Alonso

Harkaitz Cano

HIZLARI GONBIDATUAK:

Mikel Soto

Paxkal Indo

METODOLOGIA:

BIKO

TEKA tailerraren xede nagusia euskarazko liburu grafiko edo album ilustratu berriak sortzeko akuilu izatea da. Baita idazle eta ilustratzaileek elkar ezagutu eta elkarrekin liburu grafiko bat abiatzeko dinamiken jabe egitea ere. Horregatik, tailer honen emaitza gisa, parte hartzen duen bikote bakoitzak album ilustratu baten proiektua abiatuko du.

Tailerrean zehar ariketa praktikoak azalpen teorikoekin tartekatuko dira. Eta horrez gain, film, irudi eta liburuak ere erakutsiko dira.

Ikasleek formazio saioetan azalduko diren gaietara loturiko erantzun berehalakoak proposatu beharko dituzte: testuari nahiz irudiari dagokionez.

Gainera, euskarazko album ilustratuen edizio mundua gertutik ezagutzeko parada izango dute ikasleek bi hizlariren eskutik: Mikel Soto (Txalapartako editore ohia) eta Paxkal Indo (ZTK-ko editorea), hain zuzen.

NORENTZAT:

Gehienez irudigile eta idazle banak osatutako 8 bikotek parte hartuko dute.

Parte hartzeko baldintza orokorrak:

- Idazle eta ilustratzaileek parte hartu dezakete, bakarka zein binaka. Bakarka aurkezten direnei bikotea aurkituko zaie, posible den heinean.
- Parte-hartzaileek ez dute zertan lan argitaraturik izan behar eta aurkezten diren hautagaien artean egile berriak lehenetsiko dira.
- Parte-hartzaileek euskaraz jakin behar dute.
- Galtzagorri elkarteko bazkide izatea baloratuko da.

ESKAINZA:

Tailer honetako formazioa jasotzeko beka bana eskainiko zaie epai-mahaiak aukeratzen dituen 16 lagunei (8 bikoteei).

Lau egun eta erdiz, guztira, 37 orduko tailer praktikoa eskainiko da.

NOIZ ETA NON: urtarrilak 28-otsailak 1, Descalzos kaleko Igogailu ondoko udal aretoan

Urtarrilaren 28tik urtarrilaren 31ra, egun osoz:

Goizeko 9:00etatik 14:00etara (ordu erdiko atsedinarekin).

Arratsaldeko 16:00etatik 19:00etara.

Azken saioa, otsailaren 1koa, goizez: 9:00etatik 14:00etara.

Asistentzia derrigorrezkoa da: parte-hartzaileek tailerraren saio guztietara etortzeko gai izan eta horretarako konpromisoa hartu behar dute.

Descalzos kaleko Igogailu ondoko udal aretoa
Descalzos kalea 56, 2. solairua
31001 Iruñea

IZEN EMATEA:

- Ilustratzaile bakoitzak bere 3 ilustrazio bidali beharko ditu: argitaratuak edo ez, bere ustetan bere lana hobekien jaso edo biltzen duten 3 irudiak.
- Idazle bakoitzak testu labur bat bidali beharko du: argitaratua edo ez, bere ustetan bere lana hobekien islatzen duen idazlana. Gehienez ere orrialde bateko luzera izan behar du.
- Bikotean aurkezten direnek bere proiektuaren zirriborro bat bidali beharko dute.
- Horrez gain, honako dokumentazioa igorri beharko dute:
 - Curriculuma
 - NANaren kopia bat
 - Posta elektronikoaren helbidea
 - Telefono zenbakia

Dokumentazioa e-mail bidez bidali beharko dute helbide honetara: galtzagorri@galtzagorri.eus

EPEAK:

Eskaerak aurkezteko azken eguna: **2019ko urtarrilaren 14a** izango da.

Aukeratutakoei 2019ko urtarrilaren 21erako erantzungo zaie.

ANTOLATZAILEAK:

Iruñeko Udala
Galtzagorri elkarte

LAGUNTZAILEA:

Haurrentzako Album ilustratuak sortzeko Etxepare Saria

INFORMAZIOA ETA ARGIBIDEAK:

943 471 487
www.galtzagorri.eus
galtzagorri@galtzagorri.eus